

# VESUVIO, PONPEIAZ HARATAGO



**Nagore Irazustabarrena  
Uranga**

@irazustabarrena

Vesuvio (egungo Italia), K.o. 79ko abuztuaren 24a. Sumendiaren erupzio bortitzak Ponpeia eta Herkulano suntsitu zituen, eta errautsek erromatar garai-ko aztarnategi nagusietakoa gorde zuten mende luzez. Horregatik, Vesuvio Ponpeiari lotuta ezagutzen da gehienbat. Baina Europako sumendi aktibo eta bortitzenetakoak historia zabala du Ponpeiaren suntsiketa baino lehen eta ondoren. Eta egun munduko sumendi arriskutsuena dela uste da, Napolesko badiaren inguruan hiru milioi pertsona bizi direlako.

Plaka tektoniko afrikarrak eta euroasiarrak bat egiten duten gune horretan duela 400.000 bat urte hasi zen jarduera bolkanikoa, eta sumendia duela 25.000 urte eratu zen. Badakigu duela 18.000, 16.000 eta 11.000 urte erupzio pliniarrak izan zirela. Eta duela 3.800 urte Europak ezagutu duen erupzio bortitzenetakoa izan zen. Brontze Aroko hainbat herrixka suntsitu zituen. Baina 2006an arkeologoen handik alde egindako giza-ki eta animalien aztarna ugari aurkitu zituzten, eta hiru gorpuren arrastoak baino ez; ia 2.000 urte geroago ez bezala, orduko hartan biztanle gehienek ihes egitea lortu zuten.

Erupzioek uxatu bezala, populazioa erakarri izan dute Vesuvioren magaleko



*Vesuvioren erupzioa, Giorgio Sommer (1834-1914) argazkilari alemaniarrek 1872ko apirilaren 26an ateratako argazkian.*

lur bolkaniko emankorrek, sumendia lozorroan dagoenean.

472. eta 512. urteetan ere eztanda egin zuen. Eta 1631koak Ponpeia suntsitu zuen erupzioaren parekoa izan zen: fluxu piroklastikoa kraterretik hamabost kilometrora iritsi zen eta errauts hodei erraldoiak, besteak beste, Konstantinoplako zerua estali zuen. XIX. mendea bereziki aktiboa izan zen, sumendia zortzi aldiz lehertu baitzen.

1943an, berriro ere abuztuaren 24an, Ponpeiaren bigarren suntsiketa gertatu zen, baina hori ezin zaio sumendiari egotzi; hegazkin estatubatuar eta ingelesek vesuviorenak egin zituzten orduan, aztarnategian 400 kiloko 190 bonba jaurtita. Hurrengo urtean, 1944an, berriro ere sumendia jardunean hasi eta San Sebastiano herriaren zati bat suntsitu zuen. Eta horixe izan da Vesuvioren azken erupzioa, oraingoz. ■



## Mark Twain eta Halley kometa

1835eko azaroaren erdialdean Halley kometa periheliora iritsi zen, hau da, orbitan Eguzkitik gertuen dagoen eta Lurretik hoberen ikusten den puntura. Handik bi astera, azaroaren 30ean, Samuel Langhorne Clemens jaio zen, gero Mark Twain ezizenez ezagun egingo zen idazlea. Kointzidentziaren jakitun, zera idatzi zuen 1909an, kometari 76 urte inguruko orbita osatzeko urtebete gera-

tzen zitzaionean: "Halley kometarekin iritsi nintzen 1835ean. Datorren urtean itzuliko da eta harekin batera joatea espero dut. Zalantzarik gabe, Ahalguztidunak esan du: Horra hor fenomeno xelebre ulergaitz pare; batera etorri ziren, batera joan behar dute".

1910ean Halley kometa berriro azaldu zen zeruan eta periheliora apirilaren 20an iritsi zen. Twain biharamunean hil zen. ■